


INFLAZIOA

Turismoaren prezioen beherakadak KPIa jaitсарazi zuen uztailean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Uztailean, alarma egoerarik gabeko lehen hilekoa baitzen, EAEko KPI indizea $-0,6\%$ an kokatu zen, aurreko hilabetean baino lau hamarren beherago, eta horrela, lau hilabete kateatu ditu eremu negatiboan. Beherakada hori turismoaren sektorearekin lotutako ondasun eta zerbitzuen bilakaerak eragin zuen batez ere, ostalaritzan, pakete turistikoetan edo hegazkin txarteletan izandako beherakadak, hain zuzen ere.

KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko uztaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,6	-0,6
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	0,4	0,3
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,7	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	0,1	0,1
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-4,7	-0,9
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	3,9	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-10,5	-1,2


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Inflazioaren beherakada hori arindu egin zen, neurri batean, erregaien prezioen gorakadaren ondorioz. Izan ere, nahiz eta ondasun horien aldakuntza tasak eremu negatiboan jarraitu zuen, gora egin zuten alarma egoeraren amaieraren eta mugikortasunaren gorakadaren ondorioz. Hori horrela izanda, murrizketak lasaitu ahala, deseskalatzeak aurrera egin ahala, erregaien prezioak suspertuz joan dira, apirilean, maiatzean eta ekainean KPIan izandako jaitsieren eragile

nagusiak izan ondoren. Aitzitik, inflazio tasa jaisten lagundu zuten taldeen artean, aisialdiko eta kulturako taldea nabarmentzen da, $-2,2\%$ ko tasa erregistratu baitzuen, ekainean baino puntu bat eta hamarren bat gutxiago, pakete turistikoaren prezioen jaitsieraren ondorioz. Era berean, KPI txikiagoa edukitzen lagundu zuten komunikazio taldeek, telefonia zerbitzuak merkatu zirelako, eta elikagai eta edari ez-alkoholdunek, fruta eta barazkien prezioak jaitsi egin zirelako.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko uztaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,6	-0,6	0,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,8	2,2	1,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,3	0,5	3,6
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,0	6,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,7	-3,9	-1,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,1	0,6	0,8
Osasuna	0,4	0,4	0,8
Garraioa	-4,2	-4,5	-3,0
Komunikazioak	-1,1	-1,2	-1,7
Aisia eta kultura	-2,2	-1,1	0,7
Hezkuntza	1,4	0,8	1,0
Jatetxeak eta hotelak	0,1	0,3	0,6
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	-0,1	1,6	1,7

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

